



berriak

Triforio -tik



67. Zkia
2018ko abendua

araba
álava

“Kultura ondarea, iraganean eta etorkizunean berritzen”

Kultura ondarearen urte europarra izendatu dute 2018a. Kultura ondarearen inguruko adierazpen europarrek kultura eta kulturarteko aniztasuna sustatu nahi dute, bai eta kultura ondarearen kontserbazioa eta zaintza sustatu nahi ere, eta askotariko herritarrek kultur ondareaz gozatzeari laguntzen dute. Esparru horretan, CREADIS3 proiektuak (Smart Specialisation Creative Districts - INTERREG EUROPE), zeina Eusko Jaurlaritzak gidatzen duen, biltzar europar hau sustatu du: Kultura ondarea: iraganean eta etorkizunean berritzen. Honako hau Gasteizen egingo da, Europa Biltzar Jauregian, abenduaren 11n eta 12an. Kultura ondarearen inguruko hainbat ikuspegi jorratu nahi dira biltzarrean, ekosistema sozial eta sortzailatzat hartuta.

Europako herrialde batzuetako txostengileek hartuko dute parte

Alde batetik, “Iraganean berritzen” leloaren pean, memoriaren ikuspegi sozialetik (gorabeheratsua eta gutxi finkatua) eta monumentuaren ikuspegitik (testuinguruaren arabera eta erlazonala) heldu nahi dio biltzarrak kultura ondareari. Bestetik, “Etorkizunean berritzen” leloaren pean, berriz, kultura ondarearen etorkizuneko agertokiaren inguruan eztabaidatu nahi da biltzarrean, gobernamentu-eredu berrietan, teknologiak txertatzeko estrategia berrietan (digitalizazioa) eta gizarteak parte hartzeko modu berrietan jarriz begirada.

Honako hauek dira biltzarraren xedek:

- Kultura ondarearen berrikuntzei eta etorkizuneko agertokiei buruzko eztabaida sustatzea.
- Industria sortzaileen eta kultura ondarearen eremuan berrikuntzaren, gobernamentuaren eta klusterizazioaren arloan egin diren jarduerak onen berri ematea.
- Vitoria-Gasteizeko kultura ondarearen arloko esperimentazioaren aldeko manifestua bultzatzea.

Zehazki, manifestua zortzi gako osatua dago, zeinek kultura ondarearen aldeko agenda berritzailea eskaintzen duten. Izaera europarra dela eta, herrialde batzuetako txostengileek hartuko dute parte, hala nola, Portugal, Finlandia, Erresuma Batua, Suedia, Frantzia eta Espainia.

Informazio gehiago: <https://innovating.catedralvitoria.eu/>

KONTZERENTZIA EUROPARRA
2018 KULTUR ONDAREA
IRAGANEAN ETA ETORKIZUNEAN BERRITZEN
2018ko ABENDUAK 11 eta 12
VITORIA-GASTEIZ - EUSKADI (ESPAINIA)






Gabonetako mezen ordutegia

Larunbatetan goizeko 9:30etan eta igandeetan 12:00etan, Santa Maria Katedralean ospatzen diren eukaristiez gain, abenduan zehar liturgiako garai horri dagozkion mezak ere ospatuko dira. 25ean, Eguberri Eguna, zein urtarrilaren 1ean, 12:00etan eskainiko da meza. Errege Eguna igandea denez, 12:00etan mantenduko da meza.

Bisita harresira abenduaren 9an

Abenduko zubiaz baliatuz, aurten berriz, abenduaren 9an ate irekien eguna egingo da Erdi Aroko harresian. Egun horretan, 11:30etatik 13:00etara, nahi dutenek birgaitutako azken zatia bisitatu ahal izango dute, San Miguel elizaren atzealdean dagoena (sarbidea Fray Zacarias Martinez kaletik). Hogeita eta hogeita hamar minutu arteko doako bisita gidatuak egingo dira, alde zuzenetik erreserbarik egin beharrik gabe.

Horrez gain, hilabete honetako 6tik 9ra, harresiaren jatorrizko zatia (sarbidea Harategi Kantoian duena) irekita egongo da, sarrera librearekin, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara.



Aitzina Folk ekitaldiaren arira, sei edizio daraman eta ataxia telangiectasia gaixotasuna pairatzen dutenen aldeko jaialdi solidarioa, abenduaren 23an katedralera bisita musikala antolatu da. Sarrera doakoa izango da. Bertan kripta, zimendu eta habearte nagusia bisitatzeko aukera egongo da, nork bere kasa, zuzenean musika entzuten den bitartean. 19:00 tan hasiko da.

PREGOIA ETA GABONETAKO KONTZERTUA

Abenduaren 20an, Juan Carlos Elizalde, Elizbarrutiko Apezpikuak, 19:30tan Katedralean emango du pregoia, Gabonei ongietorria emanaz. Honen ondoren, bildutako ikusleek Saint Sans-en "Gabonetako Oratorioa" obra gozatzeko aukera izango dute, Vitoria-Gasteizko Abesbatza Sinfonikoaren eskutik. Sarrera doakoa izango da nabea bete arte.

